

VIII. aldiko LAUTAN HIRU: egitaraua

OTSAILAREN 5ean

Zaku berekoak (35').

Xabin Fernandez (Gehibat konpainia).
Lautan3 laguntza jaso du.

Sinopsia: Gizon batek bere familiarekin ospatu nahi du urtebetetzea.
Baina zer gertatzen da inork erantzuten ez duenean?
Zaku Berekoak oroimenaren eta eromenaren artean igerian dabilen arima baten istorioa da.

19:00etan, EUSKALTZAINDIAN

Supituki (45').

Antzerki inprobisatua.

Sinopsia: Inprobisazio teknikak erabilia, une horretara arte sortu ez diren eta sekula errepikatuko ez diren istorioak *supituki* sortzen dituzte.

20:00etan, BIRAN

OTSAILAREN 12an

Goiuri... grabatzen! (35').

Josu iriarte, Amets Larrea,
Nerea Lizarralde eta Jare Torralba.
Testua: Idoia Garzes

Sinopsia: Euskal Agentzia Espazialeko (EEE) Pitxu-14 espaziontziko eskifaiak urruneko galaxia batetik bidalitako mezu harrigarria jaso du: 'Kaixo!' Euskararen jatorri estralurtarraren froga ote?

19:00etan, GAZTETXEAN

Igogailu batean amaitu zen mundua (45').

amaHiru konpainia (Eneritz Sanchez, Iñigo Elo segi, Iñaki Cid).

Sinopsia: Idoia eta Julen igogailu batean esnatzen dira. Ez dute ezer gogoratzen. Nola iritsi dira bertara? Zergatik ezin dira atera? Eskerrak igogailu konpainiako telefonistak laguntza bidali duen.

20:00etan, BIRAN

OTSAILAREN 19an

Hautagaia (25').

Pantzo Hirigarai, Mizel Sarratia, Beñat Bidegain, Peio Larre, Armand Jaunarena eta Anje Duhalde.

Sinopsia: Hauteskundearen atarian, hautagaia estrategia prestatzen dabil. Nola jokatu? Zuzen? Maltzur? Zer egin jendearen bozak eskuratzeko?

19:00etan, EUSKALTZAINDIAN

Zazpi urte eta erdi (20').

Eider Villalba-Kimetz Etxabe (Gehibat konpainia).

Sinopsia: Umorearen eta heriotzak utzitako saminaren artean igerian dabilen obra zirraragarria.

20:00etan, KALDERAPEKON

OTSAILAREN 26an

XXIII. Café Bar Bilbao-Tartean Teatro Saria (Ganbarako lana / Xabi Payarena): irakurraldi dramatizatua (20').

Sinopsia: Bertsolari baten hausnarketa isila. Bere barneko ahotsen eztabaida bertso bakoitza kantatu aurretik. Zer kantatzen du oholtzan? Eta zer isiltzen du handik jaistean?

19:00etan, CAFE BAR BILBAON

Adriene Bergson-Johnson (50').

Maryse Urrutyren bakarriketa (Itzuli konpainia).

Sinopsia: XXI. mendeko garai likido hauetan, Adriene Bergson-Johnson texastar enpresariak argia ikusi du eta euskal kultura salbatzeko prest da. Munduan zehar proiektu izugarrietan aritua, bere kudeaketa teknika arrakastatsuak partekatzeraz dator, gure herria goi mailara itzularazteko. Coaching kolektibo ariketa honetan, Adrienen konferentziak, euskal kultura folkloretik atera eta ispilu berezi baten aurrean ezartzeko aukera ematen digu.

20:00etan, GAZTETXEAN